



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2014/15 Denboraldia

20ZK. DUN ZIRKULARRA

III. ESPAINIAKO KADETE TXAPELKETA COCA COLA KOPA-AUTONOMIA FASEA

Euskadiko Futbol Federakundeak, R.F.E.F. eta Coca Cola-rekin batera, antolatuko du txapelketa hau ondorengo arauekin:

1. KLUB PARTAIDEAK

Kadete Euskal Ligako lehenengo bost postuak, Bizkaiko Kadete Ohorezko Mailako Txapelduna, Gipuzkoako Kadete Ohorezko Mailako Txapelduna eta Arabako Kadete Lehen Mailako Txapelduna.

Soilik partaide izan ahal dira 1999ko urtarrilaren 1a eta 2000ko abenduaren 31 artean jaiotako jokalaria, talde/klub partaidearen kategorian indarrean dagoen lizentziaren jabe direnak, zein liga erregularraren lau azkeneko txapelketa partiduei dagokien data baino berrogeita zortzi ordu lehenago emango ziren.

Ezin daitezke partaide izan mendeko taldetako edo filialetako lizentziaren jabe diren jokalaria.

Jokalaria euren N.A.N., N.I.E. edo pasaportearekin etorri beharko dira. Klub partaide bakoitzak aurkeztu beharko dizkio organizazioari, federazio lizentziak hala nola hemezortzi (18) jokalariko zerrenda bat. Aipatu zerrendan jokalarien izen-abizenak eta dortsalaren zenbakia azaldu beharko dira. Partidu guztietarako zenbaki finkoa esleituko zaie.

2. TXAPELKETA SISTEMA

Lehenengo Fasea eta Final partidu hartzen ditu barne.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 2 -

1. Fasea

Zortzi klub partaideak lauko bi multzotan banatuko dira, liga sistemaren arabera jokatzeko, 40 minutuko partiduak (denbora bakar bat) eta maiatzaren 16an ospatuko dira Olanarbeko instalaziotan, belar naturaleko joko-eremuetan.

Partidu bakoitza amaitzean, emaitza alde batera utzita, penaltien jaurtiketari ekingo zaio. Klub bakoitzak 5 penalti jaurtiko ditu. Penalti horiek jaurti ondoren, berdinketa bere horretan mantentzen bada, jaurtiketekin jarraituko da garaile bat aldarrikatu arte.

Txapelketaren 1. Faserako formatua:

Lehenengo partidua: 4/3 eta 2/1

Bigarren partidua: 3/2 eta 1/4

Finalerako sailkatuko da multzo bakoitzeko txapelduna.

Finala

Multzo bietako bakoitzeko txapeldunak izango dira partaide, 40 minutuko iraupeneko partidu batean (denbora bakarrean).

Txapelduna sailkatuko da Tarteko Fase Nazionala lehiatzeko 2015ko maiatzak 31an, Burgosen.

3. BERDINKETAK

Taldeen sailkapena ebazteko (Lehenengo Fasea), bi talde edo gehiago puntu kopuru berdinarekin badaude, sailkapen onena horrela erabakiko da:

- a) Eskuratu eta jaso golen diferentzia handienagatik, Txapelketako partidu guztiak kontuan hartuta.
- b) Sartu diren gol kopuru handienagatik, Txapelketan lorturiko guztiak kontuan hartuta.
- c) Euren artean jokatu partiduen emaitzagatik.
- d) Penalti gunetik eginiko jaurtiketen emaitzengatik, partidu bakoitzaren amaieran eginikoak.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 3 -

Aurreko lau ataletan ezartzen diren arauak bere hurrenkeraren arabera aplikatuko dira, izaera baztertzailarekin, beraz, horietako batek inplikatu klubetako baten berdinketa ebatziko balu, hau kanporatua izango da, gainerakoei dagozkienak aplikatuz, bere zenbakia bi edo handiago izatearen arabera.

Berdinketa aurreikusi xedapenen bidez ebatziko ez balitz, zozketa bat egingo da talde sailkatua erabakitzeko.

Finaleko partiduan, berdinketaren kasuan, hainbat jaurtiketa egingo dira penalti gunetik, talde bakoitzeko bost, jaurtiketak egiteko bata eta bestea aldizkatuz, aurretiko zozketarekin, honetan garaile izaten den taldeak hautatu dezan lehena edo bigarrena izan jaurtiketetan eta futbolari partaideak ezberdinak izanik ate komunaren aurrean. Tanto gehien eskuratzen dituen taldea garaile aldarrikatuko da. Aurkari biek gol kopuru berdina sartu dutenean, jaurtiketak luzatu egingo dira, orden berdinen arabera, talde bakoitzak bat eginez, aurreko seriean partaide izan zirenekiko futbolari ezberdinekin, talde biek jaurtiketa kopuru berdina egin ondoren horietako batek tanto bat gehiago lortu arte.

Ekintza honetako partaide soilik izango dira partiduen araudiko denbora amaitzean joko-eremuan aurkitzen diren futbolariak.

4. ARBITRAJEAK

Partiduak zuzentzeko esleitu diren arbitroak Lehentasunezko kategoriakoak izango dira, Arabako Lurraldekoak.

Partidu guztiak hiru arbitroekin zuzenduko dira.

Errezibo arbitralak Euskadiko Futbol Federakundeak ordainduko ditu.

5. BALOIAK

Klub bakoitzak bere baloi propioak eraman beharko ditu txapelketako partiduen aurretiko beroketa egiteko.

6. JANTZIAK

Klub guztiek bi jantzi eraman beharko dituzte bere aurkariekin edonolako balizko kointzidentzia saihesteko.

Jantzia aldatuko du atxiki egutegian bisitari bezala azaltzen den taldeak.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 4 -

7. DISZIPLINA BATZORDEA

Partidu batetik kanporatua izan den jokalaria oro, gutxienez, ezin izango da partaide hurrengo partiduan.

8. ASKOTARIKOAK

Txapelketa amaitzean klub partaide bakoitzari 25 piknik entregatuko zaizkio, jokalarientzat eta teknikarientzat.

Klub partaideak, Lurralde Federazioak eta Arbitroen Euskal Batzordea horren jakinaren gainean jartzen dira, bere ezagutzarako eta dagozkion xedeetarako.

Bilbon, 2015ko maiatzaren 7an

KEPA ALLICA BILBAO
Secretario General



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

MULTZOEN OSAKETA

1. MULTZOA

- 1 – Deportivo Alavés “B”
- 2 – (Club Bizkaia)
- 3 – Antigu’ko K.E.
- 4 – Athletic Club

2. MULTZOA

- 1 – Santutxu F.C.
- 2 – Romo F.C.
- 3 – (Club Gipuzkoa)
- 4 – Real Sociedad de Fútbol

-O-O-O-O-O-O-O-O-O-



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

LEHEN FASEA

1. MULTZOAREN EGUTEGIA

Larunbata, maiatzak 16 (OLARANBE-1)

ETXEKOA	BISITARIA	ORDUTEGIA
ATHLETIC CLUB	ANTIGUO'KO K.E.	10.00 hs.
CLUB BIZKAIA	DEPORTIVO ALAVÉS "B"	10.50 hs.
ANTIGUO'KO K.E.	CLUB BIZKAIA	11.45 hs.
DEPORTIVO ALAVÉS "B"	ATHLETIC CLUB	12.30 hs.

2. MULTZOAREN EGUTEGIA

Larunbata, maiatzak 16 (OLARANBE-2)

ETXEKOA	BISITARIA	ORDUTEGIA
REAL SOCIEDAD DE FÚTBOL	CLUB GIPUZKOA	10.00 hs.
ROMO F.C.	SANTUTXU F.C.	10.50 hs.
CLUB GIPUZKOA	ROMO F.C.	11.45 hs.
SANTUTXU F.C.	REAL SOCIEDAD DE FÚTBOL	12.30 hs.

FINALA: 1 MULT. GARAILEA/2 MULT. GARAILEA (13.30ETAN)-Olaranbe-1